

Euskal Herriko udalerrri kopuruaren erdiak biztanleria galera nozitu du azken hamarkadan

Herritar kopuruak goranzko joeran darrai laugarren urtez, eta honezkero, Euskal Herriak 3.152.200 biztanle ditu. Azken urtean hazkunde demografikoa positiboa izan da, berriz ere, atzerriko biztanleria etorkinari esker. Bizkaian, esaterako, etorkin berriak medio herrialdeak biztanleria galtzeari utzi dio azken biurtekoan. Zuberoa da, bere aspaldiko joeraren baitan, 2018 urtean herritarrak galtzen jarraitu duen herrialde bakarra. Baina lurraldeari bestelako begiradarekin behatuz gero, Zuberoaren despopulazioa ez da arreta merezi duen fenomeno bakarra.

Euskal Herria [DEGURBA sailkapen](#)aren arabera aztertuta, hiru lurralde tipologiek irabazi dute biztanleria (hirigunea, landa-eremua eta bitarteko hirigunea), bai azken urtean zein hamarkada bateko perspektiban. Euskal Herriak hazkunde demografikoari eusten dio, eta egun, 3.152.000 biztanle ditu (%17,4a soilik landa eremuan). Joera orokor horren atzean, ordea, ñabardura desberdinak ezkututzen dira: Euskal Herrian 200 biztanle baino gutxiago dituzten 150 udalerrri daude, horietatik, 55k ehun biztanle baino gutxiago dituzte. Demografikoki geografia bereziki sentikorra da Estellerrian, Zuberoan, Erronkari-Zaraitzun, Auñamendin edo Garazi Baigorri bezalako eremuetan.

Espainiar estatuko despopulazioak enplegua eta zerbitzuak barnebiltzen dituzten tamaina ertaineko hirien osasunaren garrantziaz ohartarazten digu. Euskal Herriko errealitatera ekarrita, funtzionalki eskualdeburuak dira lurralde orekari eusten dioten sujetoak.

Azken urteko joera

Bizkaiko eta Zuberoako landa eremuek galdu dute biztanleria (Zuberoan dena landa-eremua da). Zuberoako galera larria eta aspaldikoa da. Lehen mundu gerraz geroztik datorren joera pean dago, hau da, mende oso bateko biztanleria galera nozitzen ari da. Bitartean, Bizkaiko hiriguneak 2011az geroztik nozitzen zuen biztanleria galera eten egin da, baina krisi hasieran baino 13.700 biztanle gutxiago ditu oraindik.

Azken urtean Irunberrialdea, Auñamendi, Erronkari-Zaraitzu, Arabako Mendialdea edo Zangozerrria eskualdeetan biztanleria galera esanguratsua eman da. Eskualde horien artean, gehienek biztanleria galera garrantzitsua nozitu dute azken hamarkadan. Hortaz, kasu gehienetan errotutako despopulazio joera bati erantzuten dio.

Euskal Herria osatzen duten 686 udalerrietatik, azken urtean 339 udalerririk biztanleria galdu egin dute. Horietatik, 291 udalerrri landa-eremuan kokatzen dira. Biztanleria galera izan duten udalerrri kopuru handi bat Nafarroa Garaian kokatzen da, batik bat, Estellerriko Ekialdean, Estellerriko Mendebaldean, Erronkari-Zaraitzun edo Auñamendin. Baina Gernika-Bermeon, Errioxa Arabarran, Garazi Baigorri edo Goierri ere modu batean ala bestean herritarrak galdu dituzten udalerrien kopurua aintzat hartzeko modukoa da.

Harremanetarako:

Gaindegiako prentsa bulegoa (Aitor)
komunikazioa@gaindegia.eus
Telf: (0034) 943 304 365
Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea 8, 20140 Andoain

Gaindegia informazio kanalak:

www.gaindegia.eus
www.datuak.eus
www.atlasa.eus
www.euskalgeo.eus

Azken hamarkadako joera

Zuberoako landa eremua izan da biztanleria gehien galdu duen eremua: Zuberoako 28 udalerrik biztanleria galdu dute, eta soilik 15 bereari eutsi edo irabazi dute. Eremu honen gainzahartzea handia da (%15,8), gainera. Bitartean, Lapurdi zein Nafarroa Behereko landa eremuen hazkunde demografikoa garrantzitsua izan da (+%17,8 eta +%6,5, hurrenez hurren), batez ere, Lapurdiren kasuan. Hau da, hirigintzaren susperraldiaren karietara "lotarako herrien" paradigma eta mugikortasuna gero eta indar handiagoa du barnealdean, baina horrek ez dio Zuberoari eragiten.

Nafarroa Garaiko landa eremuak ere biztanleria galdu egin du azken hamarkadan (-%0,8), hiriguneak ez bezala (+%5,4). Egoera bereziki larria da Erronkari-Zaraitzun, non herritarren %14a galdu da hamarkada batean eta gainzahartze maila oso handia da (%20). Erronkari-Zaraitzu eskualdeak dituen 18 herrien artean, azken hamar urteotan 12 herrik biztanleriaren %10tik gora galdu dute. Praktikan, eskualdean ez dago biztanleria galera izan ez duen udalerririk.

Nafarroa Garaian bertan, Zangozerrian, Baztanaldean, Tafallaldean, Ebro Garaiko Erriberan edota Arga-Aragoiko Erriberan ere biztanleria galera aintzat hartzekoa da, izatez dentsitate apaleko eremuak dira eta gainzahartze maila EHko bataz bestekoaren gainetik dute. Edonola ere, ez dira azken hamarkadan biztanleria galdu duten Nafarroako eskualde bakarrak. Bitarte horretan Iruñerriako biztanleria %6,8a hazi egin da. Lurralde desoreka nabarmenen aspaldiko joerak dira hauek, eta itxura batean, azken urteotan desoreka hauek lausotzen hasiak dira baina oraindik oso errotuta daude herrialdeko errealitatean.

Hego Euskal Herrian bertan ere badira beste zenbait eremuk biztanleriari eusteko egiturazko arazoak dituztenak. Nabarmentzekoak dira Arabako Mendialdea, Trebiñu edota Lea Artibai.